

IRABAZI ITURRIAK

EkoPañalek dirua irabazteko bi modu nagusi ditu: produktuak saltzea eta haur-eskoletarako zerbitzuak eskaintzea.

Lehenengo iturria produktuen salmenta da. Hor sartzen dira fardel berrerabilgarriak eta deskontu kit-ak, bai familientzat bai haur-eskoletarako. Fardel bakoitza 15 eurotan salduko dugu. Haur bakoitzak gutxi gorabehera 6 fardel erabiltzen ditu egunero. Hori dela eta, kitak eskainiko ditugu merkeago atera dadin. Hau da, sei fardel erosiz gero 60 euro ordaindu beharko lirateke. Produktuak saltzean jasotzen den dirua garraio-gastuak eta eskaeren kudeaketa estaltzeko erabiliko da.

Bigarren iturria haur-eskola eskaintzen ditugun zerbitzuak dira. Hileko kuota bat kobratzen dugu eta horri esker eskaintzen dugu zerbitzu osoa. Kuota horrek gure lanaren soldata eta eguneroko gastuak estaltzen laguntzen du eta horrela diru-sarrera egonkorra izaten dugu.

Era berean, familientzako salmentek eta tailer edo prestakuntza-saioek diru-gehigarria ekartzen dute. Gainera, diru-laguntzak ere ematen dira, adibidez: familia ugariantzat, ezintasuna duen pertsona bat duten familientzat edo diru-sarrera txikiak dituzten familientzat. Laguntza horiekin pixoihalak, adur-zapiak eta bestelako produktuak eros daitezke.

Diru-laguntzen zenbatekoa familia-unitateko kideen kopuruaren arabera aldatzen da, adibidez:

- 2 pertsonako familia batek 130 €/hilabetean kobratzen du.
- 3 pertsonako familia batek 160 €/ hilabeteko.
- 4 pertsonakoa 190 €/ hilabeteko.
- 5 kide edo gehiagoko familiek 220 €/ hilabeteko.

Laburbilduz, EkoPañalen helburua ingurumenari laguntzea da, familiei eta haur-eskoletako langileei laguntza eskaintzea eta aldi berean proiektua jasagarria eta diru-sarrera egonkorrekin mantentzea. Horrez gain, familiak gure produktuak erosiz diru-kantitate handia aurreztuko lukete. Izan ere, ohiko pixoihalekin 2920 beharko lirateke. Gureekin berriz, 12 pañal urte osoan zehar.